

KLONAKETA

ITAUNAK

Gene-iztia edo genetika, gure oitura-arlotik begiratuta, eskuratu-bearreko ikasgaia dogu eta arlo orretan erantzun gaitxa dauken itaun asko agertuko jakuz.

Noraiñoko eskubidea daukagu guk geneak aldatzeko? Aldatu ete geinkez geneak gaisorik dagoan bat osatzeko? Bizidun baten geneak artuta beste bizidun bat sortu ete geinke, Dolli ardiaren antzera?

Geneak artuta geuk nai doguzan lako gizakiak sortu ete geinkez?

Gaiso bat osatzeko bide lez artu ete geinke ,gizaki barri bat sortu eta aren zatiak artzea?

Gaur gaiso etxe ospetsuetan enbrioi edo sorpenak ugari dagoz. Orreik gizakiak ete dira?

Eta iñoz sartzen ez ba' dira ama izango danaren barrura, zer egin? Orreik iltea guzakia iltea ete da.? Eta beste galdera asko...

AURRERAPEN BILDURGARRIAK

Aurrerapen aundiak egin dauz gizakiak edestian eta guztiak ekarri dabez onura aundiak.Gogoratu, esaterako berebilla edo egazkiña. Zebat aurreratu daben bizimodua, baiña zenbat eriotza, esaterako, egazkiñak!

Baiña bildurra sortu arren eta kalteak be ekarri arren,aurerra egin bear izan da. Olako bildurra ete da geneen arlo onetan dabillena, batez be klonaketarena?

Iñoz entzun dogu bultzia edo trena asmatu zanean, Aita Santuren batek debekatu egin ebala, ariñeketa orrek bizia arriskuan jarten ebalako. Olako bildurra ete da gaur gene-iztiaren arloan dagoana.

Irudi polita da Bibliatik artua dan au:Atsegin-baratzaren albo baten beti agertzen da sugea. Ori jazoten da azmakizunen munduan be.

ARAZO BATZUK

Gizaki eldu baten geneagaz beste bat egin ezkerro, gizaki barria umearen antzekoa izango da ala gizaki elduaren antzekoa?

Sortzen diran gizaki barriok askatasuna eta erantzunpena izango dabe ala lenengo genearen menpean egongo dira arlo onetan?

Ez ete da bide ori gu baiño adimen gitxiago ta indar geiago dauken gizakiak sortu eta jopuak, esklaboak, nai dan beste sortzeko aukerea?

Ondoren ikaragarriak ikusita, bildurra sartu jake asiera baten arro ebiltzanai be. Ondorenak ikaragarriak litzakez eta sortzailleak zigortu arren be,atzerarik ez daukenak.

OSATZEKO

Beste arazo aztergarri bat: Gaur dagozen ainbeste gaiso-era larri osatu-eziñak ikusita, artu ete leike olako giza barri baten zati bat gaiso orreik osatzeko. Orretarako gizaki barria il bearra dator.

IKASI TA IRAKATSI

Egin dodazan galderak egin dodazalako eta agertu dodazan zalantzak agertu dodazelako,jakitunak barre egingo dauste, ni arlo onetan oso ez-jakiña nazelako, baiña irakurleai berbea emoten dautset, arazo au aztertu eta gure aldizkari onetan barriak emongo dodazela. Ortik dator mundu barri bat eta guztiok izan bear arlo orretan jakitun.

OLAZAR' tar Martin'ek

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbb'ra eta ordaindu 20 €. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!